



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

**HERNANIKO UDALA**

*Akats zuzenketa*

2022ko apirilaren 26ko 77 zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Hernaniko Udalaren Udaltzaingoko Ofizial plazaren oinarriak argitaratu ziren.

Aipatutako hamaikagarren xedapeneko «1. eskatutako dokumentuak» atalean, hain zuzen, akatsa dagoela ikusienez zuzendu egingo da.

— *Hau esan behar du:*

1. Eskatutako dokumentuak.

Proposatutako hautagaiak jarraian adierazten diren gaitasunak eta deialdian eskatutako baldintzak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu behar ditu, hala nola:

a) Nortasun agiria.

b) Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluak.

c) Deialdian eskatutako gidabaimenak.

d) 4. hizkuntza-eskakizuna (edo baliokidea, hau da, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 maila) egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Zinpeko aitortpena edo agintza adieraziz:

1.—Funtzio publikoak betetzeko ez dagoela ezgaitua.

2.—Zigor espediente bidez ez dela baztertua izan edozein Administrazio Publikoaren zerbitzutik.

3.—Ez dagoela Herri-administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunen araubidean buruzko 53/1984 Legeak xedatzen dituen bateraezintasuneko lege kausen menpe.

4.—315/1994 eta 36/2004 Dekretuak, otsailaren 17koak, aurreikusitako baztertze medikurako gaitzik ez duela.

f) Oinarri hauekin bat, dagokion eginkizunak betetzeko ezgaitasunik ez duela egiaztatzen duen mediku ziurtagiria. Dena den, Hernaniko Udalak erabaki dezake mediku-azterketa egitea.

Hautagaiak egoki justifikatzen badu aipatutako dokumentuak ezin dituela aurkeztu, deialdiak eskatzen dituen baldintzak dituen pertsonak zuzenbidean onartu daitekeen beste edozein bitartekoren bidez egiaztatu ahal izango du.

Aipatutako dokumentuak aurkeztuko dira helbide honetan:

Hernaniko Udala, Antolakuntza eta Pertsonal Saila, Gudarien plaza 1, 20120 Hernani, 15 laneguneko epean.

Hernani, 2022ko abuztuaren 18a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (5449)